

2. Zeregina. DBHrako Irakurketaren Ulermenerako Hobekuntza Plana.

Tarea 2. Plan de mejora de las competencias lectoras en la ESO

Zer egin istripua gertatuz gero?

Trafikoko Zuzendaritza Nagusiaren aholkuak

Seinaleztatu lekua, triangeluak ipiniz, eta jantzi txaleko distiratsua.

Babestu lekua; ahal izanez gero, deskonektatu istripua izan duen ibilgailuaren motorra, su har ez dezan. Ohartarazi leku horretan ezin daitekeela erre.

Deitu larrialdi-zerbitzuetako 112 zenbakira. Oso garrantzitsua da norbera identifikatzea, eta errepidearen izena eta istripua zer kilometro-puntutan izan den adieraztea, bai eta zenbat autok izan duten istripua eta zenbat biktima dauden ere.

Ebaluatu biktimak. Lehendabizi egoera larrienean dagoenari lagunduko diogu. Ez ditugu zauritutakoak autotik atera behar, ezta kaskoa kendu behar ere.

Lagundu osasun-laguntza iritsi bitartean. Inoiz ez zaie zaurituei sendagairik, janaririk edo edaririk eman behar. Manta batez estal ditzakegu; batez ere, odol-isuriak badaude. Zaurituak amasa hartzeko zailtasunak baditu, errazago amas dezan burua pixka bat atzeraka jar diezaiokegu, baina bizkarrezurraren ardatza mugitu gabe.

Odol-isuririk badago, egokiena trapu batez zapaitzea da, gutxienez hamar minutuan; odolez betetzen bada, beste trapu bat jarri beharko diogu gainean. Erredurak dituzten pertsonak badaude, ez zaizkie erretako arropa zatiak kendu behar, ezta babak leheritu behar ere. Orena ur hotz ugari erabiliz garbitzea da, hamar minutuz, eta

gero maingidre batean biltzea.

Reproducido con permiso de Editorial Santillana, S.L.

IRAKURKETA PLANA. BIURDANA B.H.I.	
GAIA/ASIGNATURA	Herritartasunerako Hezkuntza. DBH 3.
MAILA/CURSO	
IKASTETXEA/CENTRO	BIURDANA
DEPARTAMENTUA/DEPARTAMENTO	FILOSOFIA
IRAKASLEA/PROFESOR / A	Andoni Calvo Mateos
JATORRIA/FUENTE	
EGILEA/AUTOR	Trafikoko Zuzendaritza Nagusia
IZENBURUA/TÍTULO	Zer egin istripua gertatuz gero?
ARGITALETXEA/EDITORIAL	Herritartasunerako Hezkuntza DBH. 112 or. Argitalpen-froga azterketarako, Bilbo, Zubia-Santillana.
URTEA/AÑO	2008
ORRIALDEA(K)/PÁGINA	1
ISBN	
TESTU-MOTA/TIPOLOGÍA	
OINARRIA/SOPORTE	
FORMATOA/FORMATO	jarraitua
MOTA/TIPO	jarraibideak
ERABILERA/USO	E. publikoa.

ESTRATEGIAK/ESTRATEGIAS DE LECTURA		
IRAKURRI BAINO LEHEN/ ANTES DE LA LECTURA	1. ESTRATEGIA METODOLOGIKOAK	
	<p>1.1. Irakurketaren helbura: irakurri testu hau jakiteko nola jokatu behar duzuen errepideko istripu kasu batean (jarraibideak ematen dira).</p> <p>1.2. Aurretiko ezagutzak aktibatzea. Ikasleek gaiaren inguruan ezagutzen dutena azalaraztea:</p> <p>- Zer dira trafiko arauak? Nortzuek ezagutu behar dituzte arau horiek?</p> <p>Zer ibilgailu mota daude? Zer ziurtasun neurririk ezagutzen dituzu?</p> <p>Zenbat hildako eta zauritu larri gertatzen dira urtero estatuan errepide istripuen ondorioz?</p> <p>Zein ekintza(k) eta zein ordenatan egingo zenituzke zaurituak kausatu dituen istripu baten aurrean? Detektatu jokabide desegokiak istripu bati aurre egiteko orduan: zaurituak autotik ateratzea, kaskoa kentzea, ...</p> <p>-Berariazko lexikoa ezagutzea: seinaleztatzea, triangeluak, txaleko distiratsua, 112 zenbakia, kilometro puntua, errepide motak, ibilgailu motak, ...</p>	
IRAKURRI BITARTEAN/ DURANTE LA LECTURA	2. IRAKURLEAREN ESTRATEGIAK	
	<p>2.1. Hipotesiak egitea titulutik abiatuz eta autorea zein den kontutan harturik.</p> <p>2.2. Jarraibide testu baten ezaugarrien inguruko hausnarketa: argia eta ordenatua izan behar dela hartzaileari modu eraginkorrez iristeko (erreparatu testu honen disposizioan 6 puntu berezietan)</p>	
IRAKURRI BITARTEAN/ DURANTE LA LECTURA	2.3. Laburbilketa partzialak: puntu bakoitzaren titulua jarri, lehendabiziko hiru paragrafoen ondorengo laburpena.	
	<p>2.4. Inferentziak egitea (inferentzia hauek ikasleen esperientzia pertsonaletatik deribatutako ezagutzetan oinarrituko dira): zein distantzian ipini behar diren triangeluak, nola babesten den istripu lekua, nola jakin kilometro puntua, nola lortu oinarritzko informazioa zaurituak tratatzeko, ...</p> <p>2.5. Azpimarratu zein diren jokabide desegokiak istripu baten kasuan: zaurituak autotik ateratzea, kaskoa kentzea, anari edo edariak ematea, erreduzak dituztenei arropa kentzea eta arropa kentzea eta babak lehertzea, ...</p>	
IRAKURRI ONDOREN/ DESPUÉS DE LA LECTURA	2.6. Edukiaren sintesia: lekua seinaleztatu eta babestu, larrialdi zerbitzuetara deitu, biktimak ebaluatu, zaurituak nola tratatu.	
	2.7. Hasierako hipotesien zuzentasuna konprobatzea testua landu ondoren	
JARDUERAK/PROCESOS LECTORES		
Informazioa bilatzea edo eskuratzea RECUPERAR - OBTENER INFORMACIÓN	1.	1.1. Nola seinaleztatzen da lekua era ziur batez?
	Erantzuna Respuesta	<i>Triangeluak istripu lekutik aurrean eta atzean jarri.</i>
	2.	<p>1.2. Esan egiazkoak (E) ala faltsuak (F) diren hurrengo adierazpenak</p> <p>a. Triangeluak kokatu ondoren, txaleko distiratsua jantzi behar da.</p> <p>b. Oso garrantzitsua da zaurituak ahalik eta azkarren autotik ateratzea.</p> <p>c. Odol-isuriaren kasuan hoberena trapez batez sakatzea da.</p> <p>d. Erreduak daudenean, zaurituei arropa kendu</p>

	Erantzuna Respuesta	$a (F) - b (F) - c (E) - d (F)$
Ulermen orokorra COMPRENSIÓN GLOBAL	1.	1.3. Galdera: Jarri ordenan istripu kasu batean egin beharreko ekintzak testuaren arabera: Biktimak ebaluatu eta lagundu, larrialdi zerbitzuetara deitu, lekua seinaleztatu eta babestu.
	Erantzuna Respuesta	Erantzuna: Lekua seinaleztatu eta babestu – larrialdi zerbitzuetara deitu – biktimak ebaluatu eta lagundu.
	2.	Zein da jarraibide hauen hurrenkeraren irizpidea?
	Erantzuna Respuesta	Ziurtasuna.
Interpretazioa INTERPRETACIÓN INFERENCIAS	1.	1.4. Zer egin behar da lehenago lekua seinaleztatzea ala txaleko distiratsua janztea? Zergatik?
	Erantzuna Respuesta	Txaleko distiratsua janztea; errepidean autotik ateratzeko ezinbestekoa delako norberaren segurtasunari begira.
	2.	1.5. Identifikatu 5 jokabide desegoki istripu baten ondoren eta adierazi zergatik diren desegokiak.
	Erantzuna Respuesta	Erantzuna: zaurituak autotik ateratzea, kaskoa kentzea, biktimei sendagai, janari edo edariak ematea, erreduarak dituztenei arropa kentzea eta babak lehortzea (lagundu ordez, kaltegarriak izan daitezkeelako).
Edukiaren gaineko hausnarketa VALORACIÓN - REFLEXIÓN CONTENIDO	1.	1.6. Zure ustez, nortzuek ezagutu behar dituzte arau hauek? Zergatik?
	Erantzuna Respuesta	Erantzuna: populazio osoak, istripuek denoi eragin diezaguketelako.
	2.	1.7. Egokia al da aholku hauek Herritartasunerako Hezkuntza ikasgai agertzea? Zergatik?
	Erantzuna Respuesta	Erantzuna: Bai, ikasgai honek hiritarren jokabide egokia egoera desberdinetan ezagutarazi behar duelako.
Formaren gaineko hausnarketa VALORACIÓN - REFLEXIÓN FORMA	1.	1.8. Testuaren disposizioa sei puntu ordenatuetan azaltzen da. Zein da horren arrazoia?
	Erantzuna Respuesta	Erantzuna: Jarraibideak izanda, hartzaileari modu erraz eta ulergarri batez iritzi behar zaizkiolako.
	2.	1.12. Erreparatu lehen bost paragrafoei hasiera ematen dieten aditzei. Zein modutan daude? Zergatik.
	Erantzuna Respuesta	Erantzuna: Infinitiboa; jarraibide bat delako; inperatiboa.
PRAKTIKAN JARRI/PUESTA EN PRÁCTICA - OHARRAKOBSERVACIONES		

